

ESLAVIAR FILOLOGIA ERRUSIAN, ... "ERRUSIARREKIN EUSKARAZ HITZ EGITEAK POZ IZUGARRIA EMATEN DU"

Amaia Egilegor Urbistondo

Errusiarekiko joera nondik eta noiztik datorkidan azaltzeko jardunean, ez nuke jakingo nola hasi. Aitortu beharra daukat, dena den, betidanik izan dudala errusiar kanteikiko, musikarekiko eta, batik bat, dantzekiko, lilura eta jakin-min berezia.



Amaia Egilegor, erdian, bi lagunekin.

UBI ikasten ari nintzela, eta oraindik ikasketak nondik bideratu argi izan gabe, informatika gelan zegoen Orienta Programaren bidez Espainian ikas zitezkeen filologiaren berri izateko aukera izan nuen. Eta eslaviar filologia egitea bururatu zitzaidan. Erabaki horrek ikasketak

Madriilen edo Bartzelonan egitea esan nahi zuen. Etxekoekin hitz egin ostean, eta nire aukeran laguntzen nindutela ikusirik, hurrengo pausoa lagunei esatea izan zen. Lagunei arraroa edo ez-ohikoa iruditu zitzairen nik hartutako erabakia; baina tira, nik nireari eutsi nion.

Egindako aukera nire gustukoa izango ote zen galdera nire baitan nuela abiatu nintzen Bartzelonara. Bartzelonan igarotako lau urteak zoragarriak izan ziren. Pisuko kideek eta bertan egindako lagunek gauzak erraztu besterik ez zituzten egin.

Ikasketen hirugarren maila bukatu osteko udan izan nuen lehen kontaktu zuzena Errusiarekin: 17.000.000 km²-ko hedadura du herrialdeak eta Mosku da hiriburua; ehunka naziotako biztanleak bizi dira han, batez ere, ukrainarrak, tatariarrak eta errusiarrak (biztanleriaren %80). Beste hiri batzuk aipatzekotan, Novosibirsk, Ekaterinburgo, Cheliabinsk, Samara, Omsk eta San Pertersburgo dira nabarmentzekoak.

Nik San Petersburgo aukeratu nuen bi hilabeteko egonaldiako, errusiera ikasteko asmoz bertara egin nuen lehen bidaiari. Egokitzen gogor samarra gertatu zitzaidan hasieran, errusiar ohiturak ulertzeko zailtasuna sarri izaten nuen, eta hizkuntza guztiz ez menderatzeak traba haiek areagotzen zituen.

Ikasketen azken urtean, eta Unibertsitateak ematen zuen beka baten bitartez, San Petersburgora itzultzeko aukera izan nuen, baina epe luzeago baterako, sei hilabeterako, hain zuzen ere. Dena

errazagoa egin zitzaidan, alde batetik hiria ezaguna nuelako, eta bestetik, hizkuntza hobeto menderatzen nuelako.

Bartzelonara bueltan, eta iraileko azterketak gaindituta, nondik jo ez nekiela, Moskura lektore edo hizkuntza irakasle gisa joateko aukera eskaini zidaten. Hiri horretara joan nintzen bigarren aldia zen, bizpahiru egunez aurrez egonda bainengoen, San Petersburgon eginiko egonaldiako batean. Berritro hasieratik hastea esan nahi zuen: hiri ezezaguna, bertara egokitzea, lagun berriak ... Baina nik gogotsu ekin nion aukera ezin hobe zela pentsatzen bainuen: bai esperientzia berria zelako, baita bertako hizkuntza guztiz menderatzeko emango zidan aukera ezin hobeagatik ere.

Gaur egun, Moskuko Unibertsitatean euskara klaseak ematen ditut. Nirekin euskara ikasten 35 ikasle ari dira, gehienak hizkuntzalaritza ikasleak. Hasieran niri ere sinestezina egin zitzaidan egoera, inoiz ez bainuen pentsatu Errusiako hiriburuan euskara ikasi nahiko zuen ikaslerik aurkituko nuenik. Askok galdetuko diozue zuen buruari zerk bultzatzen dituen euskara ikastera. Nik ere ez nuke jakingo galdera horri erantzuten. Esan dezakedan gauza bakarra hau da: errusiarrekin euskaraz hitz egiteak poz izugarria ematen duela.



Amaia, ezkerretik hirugarrena, lagunekin.

JULIA ADASKINA ETA NATASHA VOSTRIKOVAREKIN SOLASEAN

Julia eta Natasha Moskuko Mikhail Vasilyevich Lomonosov Unibertsitatean hizkuntzalaritza ikasten ari diren bi ikasle dira. Aurten, azken urteari dagozkion irakasgaietan daude murgilduta. Euskara, orain dela 3 urte hasi ziren ikasten. Beraiekin hizketan aritu gara, eta hona hemen haiek kontatutakoaren bilduma.



Nola bururatu zitzaizuen euskara ikasten hastea?

N. Euskara hizkuntza interesgarria iruditzen zitzaidan, orain arte ikasitakoetatik oso ezberdina. Nik ingelesa, frantsesa eta hungariera ikasten ditut, baina euskara interesgarriagoa iruditzen zait. Noski, zailagoa ere bai.

J. Hizkuntza berezi bat ikasteko gogoia izan dut beti. Beste hizkuntza batzuk ikasteari ekin nion, baina inolako interesik gabe. Koreera ikasten hasi nintzen, baina berehala utzi nuen, alfabetoa zaila iruditu zitzaidalako. Eta gero, euskara ikasteko aukera eduki nuen, eta horrelaxe hasi nintzen.

Euskal Herriari buruz edo euskarari buruz zer-bait bazenekiten?

N. Oso gutxi. Euskarari dagokionez, hizkuntza ergatiboa zela, soil-soilik, eta horrek interes berezia sortu zidan. Bestalde, Euskal Herriari buruz ez nekien ia ezer ere.

J. Jakin, jakin ... Bertako telebistan ikusita, politikari lotutako albisteak bakarrik nekizkien. Ezer gehiago ez. Euskarari buruz nekien gauza bakarra, berriz, familiarik gabeko hizkuntza bat zela.

Etsekoei nola azaldu zenieten zuen aukera?

N. Ez dut gogoratzen. Aitak zerbait bazekien euskarari buruz, eta azaltzea, noski, errazagoa izan zen. Gogoratzen dut aitak egin zidan galdera:

"Euskara? Lehenengo ingelesarekin eta frantsesarekin bukatu, eta gero, gerokoak". Lagunei azaltzea aldiz, oso zaila egin zitzaidan: *"Euskara? Eta non hitz egiten da hizkuntza hori?"* Orduz geroztik, beti egokitzen zait euskara non hitz egiten den azaltzea.

J. Familiakoek ez zidaten inolako eragozpenik jarri. Gaztea nintzela eta nahi nuena ikas nezala esan zidaten. Gogoratzen dut lagun batek kontuz ibil-tzeko esan zidala. Jakina, noizbait Euskal Herrira joan beharko nuela pentsatzen zuen, eta han zerbait larria gertatuko zitzaidala. Lagun horrek dezente zekien Euskal Herriari buruz, baina ez jakin beharreko guztia!. Lagunei azaltzea ere ez zitzaidan erraza egin. Denek pentsatzen zuten euskara espainieraren dialekto bat zela, eta horrela... Orduz geroztik, beti nabil esan eta esan, euskara eta espainiera oso ezberdinak direla, baina alferrik!

Euskara zer iruditzen zaizue: zaila ala erraza? (Biak barrez hasi dira)

N. Hizkuntza ez-ohikoa da eta baditu bere zailtasunak, baina niri hizkuntza logikoa iruditzen zait. Agian, aditza da zailena ... aditza zuzen esateko gauza askotan pentsatu behar delako...

J. Niretzat, ordea, hitzak dira gauzarik zailena. Ingelesak eta frantsesak antzeko hitzak dituzte, baina euskararekin ez dute zerikusirik. Gramatika, noski, ez da erraza, baina alde batetik, badu bere logika, eta bestetik, mugatua da. Zenbait aspektu ikusita, hitz egiten hasteko moduan zaude, baina

hiztegi aberatsa oso da lagungarria. Gero, noski, dialektoak daude...

Euskal Herrian izan zarete?

N. Bai, behin. Lazkaoko euskaltegian hilabete egin nuen.

J. Ni bitan egon naiz. Lehenengo aldiz, Lazkaoko euskaltegian, Natasharekin batera, eta bigarrenaz, Gasteizen, EHUko eta Moskuko Unibertsitatean artean sortutako beka bat eman zidaten.

Zer-nolako traza hartu zenieten Euskal Herriari eta euskaldunei, zuen lehen bisitan?

N. Niri oso polita iruditu zitzaidan, eta jendea, oso jatorra. Hala ere, hilabete soilik egin nuen, eta hori oso tarte laburra da.

J. Politia oso; ados nago Natasharekin. Herri eta leku asko oraindik ikusteko ditut, baina arazoa denbora da. Jendea irekia da, eta oso eskuzabala. Nirekiko beti oso harrera ona izan dute. Erraz egi-ten dira lagunak.

Euskal Herrian egon berri zara; zenbat denbora egon zara?

J. Bai, egia. Gasteizen bost hilabete egon naiz, gutxi gorabehera.

Eta nolakoa da Euskal Herriko Unibertsitateko giroa?

J. Oso giro ona dago ikasleen artean. Unibertsitatea nahiko txikia da, eta ikasle eta irakasleen arteko harremana Moskuko Unibertsitatean baino estuagoa. Pedagogiari dagokionez, berriz, alde handia nabaritu nuen: irakasleak onak dira, baina metodologia ez zitzaidan oso dinamikoa iruditu, ez dakit...

Euskaldunak parranda zaleak al gara?

J. Bai... (barrez)... eta horretara azkar ohitu nintzen, zer erremedio! Euskal ohiturak ere ikasi behar nituen... hizkuntzarekin oso lotuta daude!

Euskal Herrian egon zaren bitartean, gauza xeberrik gertatu al zaizu?

J. Gauza xebre asko. Gogoratzen dut ... Santo Tomas eguna zen ... Unibertsitateko plazan ikasleak parrandan zebiltzan, eta neska bat mikrofonoetik abesti bat kantatzen ari zen. Ni eskolatik etxera nindoan, eta ezagutzen nuen mutil bat ikusi nuen. Nik, jakina, *"Hola !"*. Gerturatu nintzen eta Mos-kuri buruz hizketan hasi ginen. Nik ez nekien la-gun hark euskaraz bazekienik, beti erdaraz hitz egiten genuelako. Bat-batean, nik *"bost"* euskaraz esan nuen eta lagunak nahastu egin nintzela pen-tsatu zuen. Beste batek, euskaraz ba al nekien galdetu eta nik, jakina, erdaraz baino hobeto nekiela erantzun nion. Handik gutxira, mikrofonoa eskuetan jarri eta zerbait esateko esan zidaten...

MOSKUKO ARGAZKI BILDUMA.



Plaza Gorria.



Bolshoj Antzokia.



KGB.



Ilzmailovskj Park.



Rossija Hotela.



Historia Museoa.